

ETXEBIZITZAREN ESKATZAILEEN ERREGISTROAN IZENA EMATEKO PROZEDURAREN ESKULIBURUA

	EGIKARITZAILEA	ERAGIKETAK
1.- Etxebizitzaren Eskatzaileen Erregistroan IZENA EMATEA	IRUNVI/Web	1.- INFORMAZIOA / INPRIMAKIAK JASOTZEA: - <u>Interesatuei</u> honako hauek ematea: * Etxebizitzaren Eskatzaileen Erregistroan izena ematea eskatzeko inprimakia * Jarraibide-orriak. - <u>Herritarrari aholkularitza ematea</u> : IRUNViko langilea informazio-eskari arruntenei irtenbidea ematen saiatuko da.
	IRUNVI	2.- DOKUMENTAZIOA HARTZEA - Etxebizitzaren Eskatzaileen Erregistroan izena ematea eskatzeko inprimakia <u>hartzea</u> . - Interesatuak <u>dokumentazioa aurkeztu</u> beharko du honako hauek azalduz: identifikazioa, minusbaliotasunak eta diru-sarrerak.
	IRUNVI	3.- EGIAZTAPENA - Xehetasunez <u>egiaztatzea</u> Izena emateko Inprimakia eta aurkeztutako dokumentazioa ondo daudela eta ez dela erregistratuko osatu gabe dagoen ezer, edo herritarrari ohartarazi, tematu gero, bere eskaera artxibatzeko aukera dagoela. - Pertsona edo bizikidetzaren unitate bakoitzeko eskaera bat bakarrik onartuko da, eta ezin izango du pertsona berak bi bizikidetzaren unitate edo gehiagoko partaide izan, zaintza partekatua duten guraso bananduen seme-alaben kasuetan izan ezik.
	IRUNVI	4. ERREGISTROA - <u>Alta ematea IRUNViren Datu-basean</u> , eskatzailearen NAN zenbakiaren datua sartuz (programak automatikoki emango dio hurrenez hurreneko erregistro-zenbakia). - <u>Sarrera-zigilua</u> jarri eta erregistro-zenbakia jaso. - Eskaera eman izanaren frogagiria <u>eman</u> interesatuari.
	IRUNVI	5. INFORMAZIOA SARTZEA DATU BASEAN. - <u>Datuak sartzea</u> programa informatikoan (eskaera NAN bidez aurkitzea). - Betekizunak <u>egiaztatzea</u> (errola, diru-sarrerak...). - <u>Dokumentazioa eskatzea</u> , hala badagokio, betekizunak betetzen direla egiaztatzeko. IRUNVIk eskabidearen osagarria edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkezteko eskatu ahalko dio edozein interesduni baldin eta aurkeztutakoa nahikoa ez dela irizten badio.

II. ERANSKINA

ETXEBIZITZAREN ESKATZAILEEN ERREGISTROAN IZENA EMATEKO PROZEDURAREN ESKULIBURUA

	EGIKARITZAILEA	ERAGIKETAK
2.- Izen-ematea MANTENTZEKO (Datuen eguneratzea)	IRUNVI	DATU BASEA MANTENTZEA, honako hauek direla kausa: - ESKATZAILEA BERA; jakinarazi egin beharko du eskaeraren edozein aldaketa. *Izaera orokorrean, edozein unetan aldatu ahal izango da bere garaian aurkeztutako eskaera. - IRUNVI; urtero eskatu beharko die Erakunde eskudunei bere Datu Basea eguneratuta mantentzeko beharrezkoa den dokumentazio edo informazio guztia. - Deialdi zehatz bati dagokionez, izena emateko aldia amaitutakoan, honako kasu hauetan bakarrik onartuko dira bizikidetzaren unitateen aldaketak: Seme-alabak jaiotzea; ezkontza berriak, legezko banantze edo dibortzio berriak eta heriotzak. - DATU-BASEA LAU URTEA BEHIN BERRITUKO DA, IRUNVIk eskatuta, eta eskatzaileek berariaz baieztatu beharko dute nahi duten aukeretan izena eman dutela Datu Basean.